

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Geure panpina animaliak gustuko dituzten umeentzat dago zuzenduta, haien gurasoen nahi bakarria arriskuan dauden animalietaz jakinmina izana izango da. Beraz, modu ludiko eta entretenigarri batean, txikiek gauza berri asko ikasi ahal izango dute. Horrela, gure merkatuaren segmentazioa oso zabala izango da.

- Produktu hau **umeentzat zuzenduta** dago, bereziki 3 eta 10 urte bitartekoak (urte honetatik aurrera haurrak gai dira panpinak esango duena ulertzeko eta informazio hori barneratzeko). Horrela, haien formakuntza sustatu ahal izango dugu. Gainera, genero guztientzat izango dira, inor baztertuko ez duena.

Hortaz, gure bezeroak helduak (haurren gurasoak edo senideak) izango dira. Hauek, **naturarengandik eta desagertze bideen dauden** animalieingandik kezkatuta egongo dira, eta horregatik, beraien seme-alabak horren inguruan kontzientzia hartzea nahi izango dute.

- Gure enpresak egingo dituen pelutxeek **euskaraz zein gaztelaniaz** informazio emango dute. Beraz, euskararen erabilera sustatuko dugu eta gehienbat euskal kontsumitzaileei zuzenduta egongo da. Hala ere, bakarrik gaztelania dakiten bezeroek ere erosi ahalko dute.
- Horretaz aparte, ikastetxeek, haurtzaindegiek edota psikopedagogoak ere erosi ahalko dituzte bertan dauden ume eta haurrei irakasteko.



DATUEN BILKETA egiteko eta gure bezeroen informazioa eskuratzeko, **inkestak** egingo ditugu online eta email bidez gure bezeroei edota webgunea bisitatzen dutenei. Inkestan honako informazioa ezagutu nahi dugu: adina, zein animali dira gustukoenak... Inkesta honen bitartez, bezeroen informazioa eskuratzearaz gain, haien beharrak jakingo ditugu .